



hitzartu

FINANTZA-
PROIEKTUA

HITZARTU, HERRITARROK
AZKEN HITZA.
ACUERDO Y DEMOCRACIA.

Aurkibidea.

1. Proiektuaren helburua.....	2
2. Proiektuaren justifikazioa	2
3. Proiektuaren onuradun zuzenak.....	4
4. Proiektuaren finantziakzioa	4
5. Proiektuaren denbora-esparrua eta kronograma	6
6. Proiektuaren aurrekontua: hasierako helburua	6
7. Aurrekontu-partida garrantzitsuenak.....	7
8. Gardentasun-bermea.....	8

1. Proiektuaren helburua.

HITZARTU gizarte-ekimen bat da, gizarte zibilak antolatutako parte-hartze prozesu bat bultzatu nahi duena eta, aniztasuna abiapuntu izanik, akordioetara iristea helburu duena, honako hiru oinarri hauen gainean:

1. Gizarte-kohesio handiagoa lortzea.
2. Ingurumena eta osasuna gehiago babestea.
3. Europako politikak zorrotzago betetzea.

Aipaturiko prozesuaren bidez, **GHKPI 2017-2030** (Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2017-2030) dokumentua egitea da helburua. Hain zuzen, parte-hartze prozesuaren bidez gizarteak lorturiko akordioa eta Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko irtenbide teknikoa jasoko da erakundeen esku jarriko den dokumentu horretan.

Kontuan izanik, legez, era horretako ingurumen-plangintzak parte-hartze prozesu baten bidez egin behar direla, parte-hartze prozesu bat diseinatzeko eta dinamizatzeko sortutako ekimena da funtsean.

2. Proiektuaren justifikazioa.

2008an egin zen GHKPI 2012-2016 planaren azken berrikuspena, Aurrerabide Dokumentua delakoaren bidez, baina berrikuspen hori ez zen parte-hartze prozesu baten bidez egin, 2006az geroztik legeak hala egiteko betebeharra ezarri arren.

Aipaturiko planaren epemuga 2016ko abendua izanik, 2016aren hasieran, GHKPI 2017-2030 planaren zirriborroa egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2016ko ekainaren 6an, berriz, Gipuzkoako ingurumen-diputatuak jendaurrean adierazi zuen planaren izapideak aurrera egiten ari zirela, eta parte-hartze prozesu bat deitu zuen, 2016ko irailaren eta abenduaren artean egitea aurreikusten zena.

Baina, hori guztia iragarri ondoren, ez ziren aurrera eraman hitz emandako ekimenak. Hala, 2017ko Aurrekontuen Foru Arauaren 8. xedapen gehigarriaren bidez, Foru Aldundiak bizkar eman dio legezko betebeharrak horri, “bi dokumentuetan aurreikusitako erabakiak guztiz bete eta azpiegiturak osorik amaitu bitartean”.

Arrazoi bera jarri dute GHKPI 2002-2016 planaren ebaluazioa ez egiteko, dagokion parte-hartze prozesuaren ondoren, legez egin beharrekoa den arren.

Argi dago zein den horren helburua: gizarteak gaiari buruz ez eztabaidatzea eta ez parte hartzea, eta eztabaida eta erabaki oro ordezkapen-demokraziaren erakundeetan gauzatzea.

Legearen arabera (2011ko uztailaren 28ko Hondakinei buruzko 22/2011 Legearen 14.5 eta 15.4 artikulua), gutxienez, sei urtean behin ebaluatu eta berrikusi behar dira hondakinak kudeatzeko planak eta programak.

Hondakinen prebentziorako programak ere epe berean ebaluatu behar dira, eta, ebaluazioarekin batera, hartutako neurrien eraginkortasuna aztertu behar da. Bestalde, herritar orok izan behar du sarbidea azterketa eta ebaluazio horietara.

Ingurumen-gaiei buruzko informaziorako sarbidea izateko, parte-hartze publikorako eta justiziarako sarbidea izateko eskubideak arautzen dituen 2006ko uztailaren 18ko 27/2006 Legeko 17.1 a) artikulua (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak biltzen ditu), lege horretan parte-hartzeari buruz ezarritako bermeak ziurtatu behar dituzte administrazio publikoek, hondakinei buruzko planak eta programak egin, aldatu eta berrikusteko orduan.

Hamar urte igaro dira azken berrikuspenera egin zenetik, baina, denbora horretan, ez da egin ez ebaluaziorik, ez berrikuspenerik, ez eztabaidarik, ez parte-hartzerik.

Esan bezala, gizartearen parte-hartzea, administrazioen betebeharra izateaz gain, herritarren eskubidea da; gizarteak gauzatu beharreko

eskubidea. Erakundeei eskubide hori bultzatzea eta errespetatzea dagokie. Baina, Legeari bizkar emanez, administrazioak horri guztiari uko egiten dionez, gizarteak bere bitarteko propioen bidez eraman behar du aurrera eskubide hori, ezinbestean.

3. Proiektuaren onuradun zuzenak.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea **GIZARTE OSOA** dela proiektuaren onuradun zuzena, bi arrazoi hauek direla eta:

1. Gizarteak bere eskubide zibil eta politikoak berreskuratuko ditu, kohesionatzeko aukera izango du eta gaur egun jasaten duen polarizazio politikoa gaingitu ahal izango du.
2. Ingurumenean hobekuntzak, berrikusiko diren Hondakinen plan eta Prebentzio-programei esker.

4. Proiektuaren finantziarioa.

Gizarte zibilak finantzatuko du partaidetza-proiektu osoa, alegia, proiektuan aurreikusitako ekintza guztiak, gure kulturaren sustrai sendoak dituen erakunde baten bidez: AUZOLANAREN bidez.

4.1 Finantziario-eredua.

Proiektua finantzatzeko, Internet bidez Crowdfunding proiektuak finantzatzen dituen enpresa bat kontratatuko da. ITSULAPIKOA enpresa hautatu da, gure komunitatean sustraiak dituen bakarra delako, eta ofizialak diren bi hizkuntzetan bermatzen duelako bere eskaintza.

Horrekin batera, diru-ekarpen zuzenak egiteko ohiko moduak erabiliko dira: diru-sarrerak egiteko kontu-korrontea, kaleko diru-bilketak eta ekitaldiak.

Proiektuari atxikitzen zaizkion erakundeek (Hitzartukideak) kopuru jakin bateko ekarpena egitea eta haien bazkideen artean beste kopuru bat biltzeko konpromisoa hartzea proposatzen da. Horretarako, Crowdfunding enpresaren web-orrira joateko esteka bat izan beharko dute erakunde horiek haien web-orrietan, eta erakunde bakoitzak lortutako sarrerak kontatzeko sistema bat ezarriko da. Diru-bilketa egiteko bigarren modu horrek ez du lotzen elkartea, inondik ere, aurrez zehaztutako bilketa-helburua betetzera. Jendea motibatuzeko eta proiektuak arrakasta izateko modu bat besterik ez da.

Pertsona partikularrak ere izan daitezke Hitzartukide. Kasu horretan ere, bakoitzak ekarpen bat egingo du, eta haien inguruan kopuru jakin bat biltzeko “konpromisoa” har dezakete.

Helburua da herritar eta erakunde guztiak jabetzea hau guztion lana dela, alegia, proiektuan jarrera aktibo bat izateko modu bat da, azken finean, haiek baitira proiektuaren onuradunak.

Abenduaren 16an hasiko da proiektua finantzatzeko diru-bilketarako kanpaina, eta 40 egun iraungo du.

Dena den, lehenengo kanpainan bildutakoa nahikoa ez bada, 2018ko udan beste kanpaina bat egitea aurreikusten da, bigarren seihilekoko jarduerak finantzatu ahal izateko.

4.2 Finantziatu beharreko ekintza zehatzak.

Hauek dira parte-hartze prozesurako aurreikusitako ekintza zehatzak:

1. Diru-bilketarako kanpaina (Egin HITZARTUKIDE)
2. Parte-hartze prozesuaren dinamizazioa, EHUko Parte Hartuz ikerketa-taldeak diseinatua.
3. Gizarte-mahaiaren eta mahai teknikoaren dinamizazioa.
4. Deliberamendu-prozesua
5. GHKPI 2017-2030 plana idaztea.
6. Hondakin-kudeaketarekin loturiko politikan parte hartzeko eskubidearen defentsa juridikoa, auzitegien eta Europako

Batasuneko erakundeen aurrean.

5. Proiektuaren denbora-esparrua eta kronograma.

Proiektua datorren urtearen amaierarako amaitzea aurreikusten da. Hona hemen

JARDUERA GARRANTZITSUENAK. HITZARTU.	2017	2018											
	ABE	URT	OTS	MAR	API	MA	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Diru-bilketarako kanpaina													
Parte-hartze prozesuaren dinamizazioa.													
Mahai teknikoa eta soziala martxan jartzea eta dinamizatzea													
GHKPI 2017-2030 plana idaztea.													

kronograma.

6. Proiektuaren aurrekontua: hasierako helburua.

Gure nahia, prozesua ahalik eta kalitate onenaz garatzea litzateke. Nolabait ere erakunde-proiektu baten mailan edo maila hobeko batean egon dadin.

Kalitate egoki horretara heltzeko egin den proiektuaren aurrekontu estimazioa laurogei mila eurotako da (80000 €)

Diru bilketa kanpainaren arrakasta maila, aurretiaz, ezin denez jakin, helburu malguen egitura osatu dugu. Proiektua egiazko aurrekontura egokitu dadin; era honetara zenbat eta ahalegin eta inplikazio social haundiagoa dagoen einean proiektuaren kalitatea hobetuko delarik.

Erantsitako taulan zehazturik daude aurrekontuaren atalez ataleko azalpenak. Hiru koloretan sailkatu dira, kalitatea irudikatzen dutelarik. Horia gutxieneko kalitatea izango litzateke, berdea kalitate ertaina eta gorria kalitate gorena.

AURREKONTU BANAKAPENA PROZESUAREN HRU AUKEREKIN				
ID	KONTZEPTUA	GUTXIENEO ZENBATEKOA	ERDIKO ZENBATEKOA	ZENBATEKO EGOKIA
1	Parte-hartze prozesuaren dinamizazioa.	10000 €	20000 €	35000 €
2	GHKPI 2017-2030-aren Idazketa.	10000 €	20000 €	35000 €
3	Kostu Juridikoak.	5000 €	8000 €	10000 €
PROIEKTUA GUZTIRA:		25000 €	48000 €	80000 €

Parte Hartuz-ek parte-hartze prozesuaren hiru aldagai zehaztu ditu –prozesuaren gutxieneko kalitatea, kalitate ertaina eta kalitate ezin hobea berrmatuko duena–. Bildutako diruaren arabera, bat ala bestea aplikatuko da. Gure ustez, bigarren aukera izango litzateke egokiena, baina, jakina, diru-bilketa aukera horretan aurreikusitakoa baino handiagoa bada, kalitate ezin hobeko proiektua aurrera eramateko aurrekontua aukeratuko genuke.

Berdin izango da, mahai teknikoarekin, kontratatu edo konbidatu beharreko empresa edo tekniko kopurua diru funtsaren arabera izango da.

Ondorioz, proiektuaren helburuetan gutxieneko zenbatekoa 10000€koa izango litzateke.

7. Proiektuaren lehenespen hierarkia. Jerarquía de prioridades de proyecto.

Proiektua bat bakarra izanik ere, elkarrekiko autonomoak diren hiru azpi partaidetza-prozesutan banatu dugu: Parteahartzea, Planaren errredakzioa eta Babes juridikoa.

Era honetara lehentasun hierarkia finkatu dugu, jasotzen den diru kopurua honela bideratuko litzatekeelarik bertara, urrenkeraz taulan ageri den bezala:

A.- Parte-hartze prozesua –maila horia.

B.- Idazketa-maila horia

- C.- Parte-hartze prozesua-maila berdea
- D.- Idazketa-maila berdea
- E.- Babes Juridikoa-maila horia
- F.- Parte-hartze prozesua-maila gorria.
- G.- Idazketa-maila gorria
- H.- Babes Juridikoa-maila berdea eta gorria

PROIEKTUAREN LEHENTASUN HIERARKIA								
BIDERATZEN DEN JARDUERA	DIRU BILKETA							
Parte-hartze prozesua-maila horia.								
Idazketa-maila horia.								
Parte-hartze prozesua-maila berdea.								
Idazketa-maila berdea.								
Babes Juridikoa-maila horia.								
Parte-hartze prozesua-maila gorria.								
Idazketa-maila gorria.								
Babes Juridikoa-maila berdea eta gorria.								
	A	B	C	D	E	F	G	H

Behin bilketa egokira iritsi ondoren, eta uste baino kopuru haundiagoa bilduko balitz, lehenik eta behin prozesuaren hobekuntzarako bideratuko litzateke eta hierarkia bera mantendu.

8. Gardentasun-bermea.

Hitzartu.eus web-orrian jakinaraziko dira gastuei buruzko xehetasun guztiak eta diru-sarreraren mugimendu guztiak.

Diru-sarreraren zenbatekoa adieraziko da, baina ez nork egiten dituen, ekarpenak egiten dituzten herritar eta erakundearen intimitatea babesteko.

Diru-sarrerak egiteko banku-kontua mankomunatua izango da, eta, gutxienez, berme-

batzordeko kide batek izan beharko du kontu horretako titularra. Hortaz, ezingo da ordainketa edo igorpenik egin batzorde horren onespenerik gabe, eta, hartara, mugimendu horien helburua proiektua finantzatzeko ekintzak direla egiaztatu ahal izango da.

Hitzarturen (www.hitzartu.eus) zein Crowdfunding enpresaren-ITSULAPIKOA, web-orrietan une oro emango da ordura arte jasotako diru-sarreraren informazio eguneratua.

Prozesuaren amaieran, kontuak likidatzeko eta kontu-emateko batzar bat egingo da, soberakinik izanez gero, horiekin zer egin erabakitzeko.

Edozein norbanako edo erakundek eskatu ahal izango du informazioa web-orriaren bidez, eta web-orrian bertan argitaratuko dira eskaturiko datuak.



hitzartu
FINANTZA-PROIEKTUA